

EKT ikastaroak bloga sortu du bere webgunean, elkarrizketa gune izan dadin

2009/02/03

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluak **blog bat** gehitu dio bere webguneari. Sinestuta Internet dela **elkarrizketa gune** erraldoia, ikastaroko antolatzaileek horretarako sortu dute, hain zuzen, bloga: elkarrizketa eragiteko.

Batzorde Pedagogikoak garbi du zer alde dagoen webgunea eta blogaren artean, zertarako erabiliko diren bata zein bestea:

- Webgunean ikastaroari buruzko informazioa eta materiala jarri nahi ditu, ikasleek erabil ditzaten.
- Blogean elkarrizketa sortu nahi du, ikasle, hizlari eta antolatzaileen artean. Ikasle ohiek ere aukera izango dute, nahi izanez gero, bertan parte hartzeko.

Bi modu parte hartzeko

Ikasleek bi modu izango dituzte blogean parte hartzeko: artikulua idatzita eta besteen artikuluei erantzunda.

1. Ikasle batek nahi duenean artikulua edo iritzi bat argitaratu, lehendabizi idatzi egingo du artikulua. Gero, gauzak errazte aldera, webmasterrari bidaliko dio, horrek blogean argitara dezan, beti ere bidaltzailearen izenean.
2. Erantzun nahi izanez gero inoren artikuluari, ikasleak artikuluan bertan izango du aukera erantzuteko.

Blogean argitaratu den lehen artikulua —Ikasleak errespetua merezi du— garbi adierazten du zer tonu lortu nahi duten antolatzaileek —bizia eta irekia—, artikulua badu-eta autokritikatik dezente.

